

Aski da! Behingoz

Miren Azkarate
Badiola

Telebista piztu dut. Albistegien orduan lehen berriak horrela dio: «Gizon batek bere 3 eta 6 urteko alabak hil eta ondoren bere buruaz beste egin du». Bigarrenak horrela: «Gizon batek bere bikotekidea labankadaz hil du. Bereizten ari ziren». Eta hirugarrenak, berriz: «Emakume batek drogatuta eta bortxatu egin dutela salatu du». Nahikoa da! Telebista itzali dut, hau ezin da jasan!

Nazka, amorrua, haserrea, aspergura... Noiz arte horrelako lerroburuak? Eta okerragoa dena, zein mailatara iritsiko da gure asimilazioa?

Hurrengo egunetan hortxe ikusiko ditugu elkarretaratzeak “Aski da!” lelopean. Beharrezkoak guztiak, baina tamalez ez dira nahikoa! Ez da nahikoa ardura politikoa duten horiek goizetan euren udaletxeko eskaileretan pankarta baten atzean protesta egitea hutsa. Ez da nahikoa urtean bi kanpaina instituzional ateratzea kontzientzia lasai izateko.

Ardura duten horiek benetako borondatea erakusteko garaia da gai hau errotik alda dadin; hezkuntzara baliabide gehiago bideratuz –haur eta gazte guztiak hezkidetzan eta errespetuan hezteko–, kate publikoetako edukiak berriku-

siz eta beste balio batzuk lantzen dituzten programak sustatuz, benetako sentsibilizazio kanpainak eginez, salatzen duten emakumeen beharrei erantzunez, emakumeon ahalduntzean inbertituz...

Erailketa hauek ez baitira lau gizon zororen kontua, gizarte oso baten arazoa baizik.

Emakume eta kazetari bezala, horrelako berriak entzuteari utzi nahi diot behingoz. Askatu pankartak eta hasi behingoz baliabideak jartzen beste emakume eta umerik akabatu aurretik. Aski da! Baita ezer ez egiteaz ere! •

Nora naramazue

Antton Izagirre

Amerikako indigenak, meategien eta uraren esplotazioen aurka lurraren espekulatzaileen aurrean diharduten borroketan, lurrarekin, airearekin, urarekin, hegaztiekin eta naturako elementuekin eta hori guztia eman dieten arbasoekin hitz egiteko gai dira, haien ahotsak entzuten dituzte eta haien minaren lekuko dira.

Arrazionaltasunaren izenean aberastasuna eta garapena eskainiz datozen boteretsuen aurrean, ama lurraren deia eta ahots mingotsa dute argudio bakarra, lurrari min gehiago egitea galarazteko.

Gure lurretan ere, biharko garapenaren aitzakian –AHT, Erraustegia, Arral...– gaur lurrari, ondareari eta naturari egiten ari garen eraso ekologikoen aurrean, geure indigena izaera berreskuratutako beharra dugulakoan nago; naturako elementuen mesedetan, horien ahotsaren esanetara aritzeko.

Agian, ikus eta entzuteko gaitasuna galdua dugu dagoeneko. Halere, azkenaldian gure sorgokeria hausteko adinako oihua egiten ari zaigu ama lurra. Pinudiek jasan duten izurritea, gizakiok erasaten gaituzten gaixotasun berriak

edota klimaren aldaketa lurraren eta naturaren ahots gisa hartzen ez ditugun bitartean, inoiz izan dugun jakituriarik handienaren jabe izango gara baina lurraren garapen naturalaren aurka arituko gara.

Zientzialariek ohartarazi berri digute lurraren kutsadura eragiten ari den aldaketa klimatikoa lurraren ardatzaren kokapena aldatzen ari den zantzuak dituztela, itsas uretan horrek izan ditzakeen ondorioekin.

Ama lurra «nora naramazue» orroka ari zaigu eta gu entzungor. •